



**APAREJADOREA BITARTEKO FUNTZIONARIO GISA HAUTATZEKO PROZESUA**  
**EZAGUTZA FROGA- IDATZIZKO ZATIA (2019-XI-07 // 8:30)**

50 minututan garatu itzazu egindako galderak, utzitako espazio txuri horretan. Gehienez guztira 3 puntu eskuratuko dira froga honetan. Bi erantzun gutxienez euskaraz idatzi behar dira.

1.-GALDERA: Otsailaren 27ko 3/1998 legea - 7/2012 legearen aldaketen ondoren-

1.1.- Euskadiko ingurumen lege orokorrak ezarritakoa kontuan hartuz, zein parametro izaten dira aintzat, jarduera baten eragina ( ingurumenean eta giza osasunean) handiagoa edo txikiagoa den jakin eta jarduera sailkatzeko? Puntuazioa gehienez: 0,4 pt.

1.2.- Aipa itzazu eragin txikia duten lau jarduera. Puntuazioa gehienez: 0,2 pt.

- 1)
- 2)
- 3)
- 4)



1.3.- Zein izen du eragin txikia duen jarduera bat abian jartzeko egin edo aurkeztu beharreko izapideak? Zein eskari mota eta agiri zehatz aurkeztu behar dira, nork, non? Udalaren izapideak edota ahalmenak aipatu. Puntuazioa gehienez: 0,4 pt.



2.GALDERA: Eraikinen ikuskapen teknikoaren 117/2018 Dekretua

2.1.- Zein eraikinek eduki behar dute EIT izeneko agiria? Egingo ez balute , udalak ba al du ezer egiterik? Puntuazioa gehienez: 0,1 pt.

2.2.- Azaldu modu laburrean Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egiteko prozedura. Nori dagokio egitea? Zein agiri gauzatu behar dira? Zeini aurkeztu behar zaizkio? Habilitatuko teknikariak zeintzuk dira. Edukia: zer eta nola egin behar da azterketa edota txostena? Udalak ezer egin behar al du? Ba al da eperik? Puntuazioa gehienez: 0,3 pt.



2.3.- Zein emaitza, maila edo kategoria mota erator daitezke ikuskapen teknikoaren ondorioz? Zein betebeharrak eratorritzen dira maila bakoitzean? Udalaren erantzuna edo jarduerak nolakoak izango da mota edo kategoria bakoitzean? Puntuazioa gehienez: 0,5 pt.

2.4. -Erabilera eta mantenu plana. Puntuazioa gehienez: 0,1 pt

-Definizioa

-Zertarako da?

-Noren betebeharra da?



3. GALDERA: 4/2019 Euskadiko energia jasangarritasun legea.

3.1.- Zein kalifikazio energetiko behar dute Euskadiko Administrazio publikoetako lehendik dauden edo lehenagoko eraikinek? Puntuazioa gehienez: 0,05 pt

3.2.- Eraikinen berriek eta eraberritze integralak behar dituzten eraikinek zein kalifikazio energetiko lortu behar dute? Puntuazioa gehienez: 0,05 pt.

3.3.- Udalak ibilgailu berri bat erosi nahi badu, 2020 urtean, zein ezaugarri behar du izan? Puntuazioa gehienez: 0,1 pt

3.4.- Energia auditoria dela eta, Administrazioek ba al dute betebeharrak berezirik? Noizko? Zein maiztasunarekin? Zein helburu ditu? Zein da bere gutxieneko edukia? Argiteria publikoari dagokionez, ba al da berezitasunik? Puntuazioa gehienez:0,3 pt



3.5.- Energia jasangarritasun edo energia ekintza plan bat prestatu beharra du Administrazio publikoak, 14 artikulua araberako (plan de sostenibilidad o actuación energética). Nola prestatuko zenuke? Egin eskema-aurkibide gisako bat gutxienezko edukia zehaztuz eta memoria txiki bat puntu nagusienak arazoituz. Puntuazioa gehienez: 0,5 pt.